

#### 4. GAIA: “ ZUZ. ADMINISTRATIBOAREN ITURRIAK”

##### 1.- SARRERA.

Esan genuen bezala, arau juridikoak zuzenbidearen ardatza dira, zuzenbidea hauetaz osatzen baita. Zeintzuk dira labur-labur arau juridikoen ezaugarriak?

- Koakzioa: arauak betebeharrekoak dira. Jarduera bat agintzen dute eta hiritarrak bete egin behar ditu nahi ta nahi ez.
- Abstrakzioa: arauen indarra ez da bere betetze bakunarekin agortzen, behin eta berriz betetzeko eratu dira. Administrazio-egintzak aldiz hiritar bati zuzentzen zaizkio eta behin betetzean agortzen dira.
- Orokortasuna: Arauak hiritar zein Administrazioari zaizkio aplikagarri, orokortasunari zuzentzen dira.
- Publizitatea: Konstituzioaren 9.3 artikulua arauen publizitatea bermatzen du, hauen indarrean sartzea publizitatearen menpe uzten delarik. Kode zibilak 20 eguneko epea ezartzen du behin publikatuak diren unetik arauak indarrean sartzeko.
- Hierarkia: Konstituzioaren 9.3 artikulua hierarkia printzipioa ezartzen du arauen artean. Maila gorengo arauak maila berdineko zein baxuagoko arauak alda ditzazkete.
- Iraupena: Arauak euren ezabatzea heldu arte diraute, hau da, iraungiak izan behar dira. Maila gorako edo maila berdineko baina berriagoa den arau batek bakarrik iraungi zein alda ditzazke.
- Atzeraezintasuna: Arauen ondorioak soilik hauek argitaratu eta momentu hortatik aurrera gauzatuko dira. Salbuezpenez onartzen zaizkie ondorioak izatea hauek indarrean sartu baino lehenagoko egoeratan: izaera zigortzailea dutenean eta sujetuarentzat onuragarriak direnean edo arauak espreski hala aurrikusten duenean.

##### 2.- ZUZENBIDE ADMINISTRATIBOAREN ITURRIAK:

## a) KONSTITUZIOA.

- Konstituzioa ordenamendu juridikoko lehen araua da, gorenena.
- Konstituzioa hiritar zein botere publikoen gainetik dago. Ondorioz, botere publikoetatik sor daitezkeen arau ezberdin guztien gainetik ere egongo da.
- Gailentasun (supremacía) formala eta materiala: Formala, ezin da beste arau batengatik aldatua izan. Materiala, denek bete eta errespetatu beharko dute, bai hiritarrek eta baita betere publikoek, Auzitegiak barne.
- Aplikazio zuzena eta berealakoak: Konstituzioaren 14-29 artikulua, berehala eta zuzenki aplikatzen dira, oinarrizko eskubideak eta askatasunak onartzen bait dituzte. Aldiz, jarraian datozen eskubideek eta printzipioek garapen bat beharko dute, ezingo dira ez zuzenki aplikatu eta ezta ere auzitegien aurrean zuzenean eskatu.
- Erreforma konstituzionala: Konstituzioak berak, hau nola eraldatua izan daitekeen zehazten digu. Horrela, "Aurretiazko Titulua" (art. 1-9), "II. Kapituluak", "I. Tituluaren 2. Kapituluaren 1. Sekzioa" (art. 14-29) eta II. Titulua (koroa, 56-65 arts.) aldatzeko prozedurak ganbaren onarpena behar du 2/3agatik. Jarraian disolbatu egingo dira, berriro ere eratu eta 2/3a lortu beharko da eta azkenik erreferendun bitartez onartu beharko ditu herriak.

Beste artikulua eraldatzeko ganbara bakoitzak 3/5en adostasuna eskatuko da eta erreferenduna beharko da hala eskatzen duenean bi ganbaretako baten 1/10ak.

- Konstituzioaren indarra: Konstituzioa babesteko jakin badakigu Auzitegi berezi bat dugula Espainian, Auzitegi Konstituzionala. Honen funtzioak lege zein lege mailako arauen konstituzionaltasuna kontrolatzea, edozein magistratuk zein epailek aurkez dezaketen konstituzionaltasun kuestioa ebaztea eta erkidegoen artean edo erkidego bat edo batzuen eta estatu

zentralaren artean sortzen diren eskuduntza gatazkak ebaztea dira.

#### **b) NAZIOARTEKO HITZARMENAK.**

- Tratatuaren kokapena: Tratatuak barne ordenamendua osatzen duten lege guztien gainetik daude, nahiz eta materia anitzak arautu. Gorentasun honen ardatza zera da: tratatu hauek aldatzeko, nazioarte mailako arauak soilik errespetatu behar dira.
- Konstituzioa tratatu ororen gainetik dago: edozein tratatu onartzeko konstituzioarekin bat datorrela konprobatu behar da lehenik.
- Europar zuzenbidea: Espainiak EBan sarrera onartu zuen 1986an. EBeko kideak diren estatuak (28 gaur egun) Europak ordenamendu juridiko propio bat izango duela adostu dute eta baita erakunde berezi batzuek, zuzenbide hau sortu eta betearaziko dutenak. EBan sartzeak EBri zenbait materia esleitzea suposatzen du; honen arabera estatuak euren subiranotasuna galduko dute arlo horietan Europari esleituz hauek arautzea.

#### **c) LEGEA.**

##### **1.- Kontzeptua.**

- Legea herriaren borondatea da. Legea egiten duen organua herriaren subiranotasunaren islada da, gizartea ordezkatzeko du.
- Konstituzioaren azpian dauden neurrian hau errespetatu behar dute. Honek ez du esan nahi legez soilik Konstituzioan ezartzen dena gara daitekeenik. Legegileak askatasuna du arautzeko baldin eta Konstituzioa errespetatzen badu.
- Legeak gizartearen borondatea isladatzen duen neurrian, epaile eta magistratu guztiek errespetatu egin behar dituzte. Auzitegi Konstituzionala da eskudun bakarra legeak Konstituziora egokitzeko.
- Espaniar estatuaren deszentralizazioak, hau da, elkidegoetan hau banatzeak, lege autonomikoen sorrera ekarri du. Erkidegoek euren esparruan legeak egin ahal izango dituzte.

- Laburtuz, legea herriaren subiranotasuna isladatzen duten organuen fruitua da, Konstituzioa delarik duen muga bakarra.

## **2.- Lege erreserba.**

- Zer da lege erreserba? Konstituzioak zenbait materia edo gai, legez bakarrik gara daitezkeela ezartzen du. Lege erreserbak suposatzen du materia horiek legez soilik gara daitezkeela, nahiz eta legeak berez erregelamenduz osatuak izateko aukera egon, noski. Horrela, materia hauetan legeak oinarriak ezarriko ditu hau Gorteei erreserbatuz eta gero, gobernuak materia osatzeko aukera izango du erregelamenduz. Beti ere, legea errespetatuz.
- Ze materiek dute lege erreserba? Konstituzioaren I. Tituluak (14-55 artikulua), Jabetzaren erregulazioak (Konstituzioaren 132. Artikulua) eta sektore publikoari erreserbatzen zaizkion errekurso zein serbitzuen arauaketa (128.2 art).
- Legeen artean lege mota ezberdinak dauzkagu: lege organikoak (estatu zentralari erreserbatzen zaizkio, erkidegoek ez dituzte), erkidegoen estatutuak eta lege arruntak.

## **3.- Lege mota ezberdinak.**

a) Lege organikoak: Lege hauek bi berezitasun dituzte, materia batzuk arautzeko derrigorrezkoak dira eta euren eraketarako prozedura berezia dute.

- Prozedura: Kongresuaren gehiengo absolutua eskatzen dute onartuak izan ahal izateko.
- Materiak: Oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen (14-29) garapena; estatutu autonomikoak; hauteskunde erregimen orokorra eta Konstituzioak espresi erreserbatzen dizkion materiak.
- Lege organikoen elaborazioa ezin da delegatu eta ezin dira ekimen popularrez bultzatu.
- Lege arruntez arau daitezkeen zenbait materia nahi izanez gero lege organikoz arau daitezke, baina honek ez du esan nahi lege organikoari erreserbatzen zaizkionik hortik aurrera.

b) Autonomi estatutuak:

- Konstituzioaren azpian kokatzen diren lege organikoak dira hauek. Baina ez dira edozien lege organiko, prozedura berezi bat jarraitu behar delako hauek onartzeko.
- Prozedura: Erkidegoetako botere legegileak ematen dio hasiera prozedurari. Erkidego bakoitzeko parlamentuak estatutuaren proiektua egiten du eta Gorte Orokorretara igortzen da proiektua hauetan onar dadin. Gorteetan estatutua azaldu eta defendatzeko erkidegoetako parlamentuek komisio bat sortu dezakete, komisio hau "kongresuko komisio konstituzionalarekin" bilduko delarik.

Behin proiektua kongresuko komisio konstituzionalak onartzen duenean, hau erkidegora igortzen da bueltan, bertako hiritarrek honen inguruan erabaki dezaten erreferendun bitartez hau onartuz edo ez. Ez balitz adostadunik egongo aipaturiko komisioan, estatutua Lege organiko arrunt baten proiektu bat bezala tramitatuko litzateke. Modu honetan aprobaturiko balitz, erkidegora igorriko zen hau erreferendun bitartez onartua izateko baita.

Edozein bi sistemen bitartez behin erkidegoan erreferendun bitartez aprobaturik denean, testua berriro ere Madrilerara igorriko litzateke bai Kongresuak eta baita Senatuak aproba dezaten Lege organikoaren prozeduraren bitartez.

- Estatutuek Erkidego bakoitzari egokitzen zaizkion eskuduntzak definitzen dituzte, Estatuak ezingo duelarik eskua sartu materia hauetan. Ezingo du materia hauetan eskua sartu ezta Lege Organikoz, Konstituzioaren kontra arituko baitzen. Auzitegi Konstituzionalari egokitzen zaio Estatutuen auziak ebaztea.
- Estatutuak soilik eurek ezartzen duten prozeduraren bitartez aldatuak izan daitezke, hau da, estatuko lege batek ezin du hauek eraldatzeko sistemarik barneratu.

c) Lege arruntak:

- Legeak beti gehiengoz onartzen dira. Estatuko gorteek (kongresuak eta senatuak) edo erkidegoetako parlamentuek onartuko dituzte segun eta ze eremuko legeak diren. Lege arrunten artean sailkapen edo mota ezberdinak aurki ditzazkegu: oinarri legeak (oinarri eta printzipioak zehazten dituzte, Gobernuak erregelamenduak argitaratzean errespetatu beharko dituenak), oinarrizko legeak (materia baten inguruan oinarriak ezartzen dituzten legeak dira eta materia horietan Konstituzioaren arabera Gobernu zentralari egokitzen zaio oinarriak ezartzea. Garapena erkidegoek egingo dute. Auzitegi Konstituzionalak zehaztuko du zer den oinarria eta zer garapena), armonizazio legeak (Erkidego ezberdinek ematen dituzten legeak batearaztea dute helburu bezala), lege autonomikoak (erkidegoek euren materiatan eta euren esparrurako ematen dituzten legeak dira hauek). **LEGE GUZTIEK MAILA BERDINA DUTE.**

**4.- Lege mailako arauak:**

- Botere banaketaz ari izan ginenean, Botere Legegileari zegokiola legeak egitea argi esan genuen. Hala ere, Konstituzioak Botere Exekutiboari, Lege maila izango duten arau zehatz batzuk emateko aukera erreserbatzen dizkio, kasu konkretu batzuentzat eta baldintza ugari ezarriz.
- **Lege dekretuak:**
  - Konstituzioaren 86.1 art-an datoz, eta bertan esaten zaigun moduan, behar maila oso altua dagoenean eta presazkoa denean soilik eman daitezke hauek. Baina noiz dugu behar maila altua eta presa?
  - Presa: Kasuz kasu aztertu beharko da eta hau soilik emango da egoerak ez duenean aukera ematen legeak eskatzen duen prozedura jarraitzeko.
  - Behar maila altua: Lege dekretua onartzea ezin bestekoa izan behar du, garrantzi politiko izugarria izan behar du.

- Ezin dira Lege dekretuak edozein materiatan eman, zenbait honen eremutik at egonez: Estatuko oinarrizko erakundeen erregulazioa, Konstituziaren I. Tituluko eskubide, betebeharrak eta askatasunak, Erkidegoen errejimena eta Auteskunde materia.
- Lege dekretuaren bitartez egiten den erregulazioa behin behinekoa da. Kongresuak 30 eguneko gehienezko epea izango du Gobernuak egindako Lege dekretua berrikusteko. Kongresuak hau berretsi, derogatu edo Lege proiektu bat bezala tramitatu dezake. Kongresuak lege berri bat emango balu, honek Lege dekretua ezabatuko luke.
- **Dekretu Legegileak:**
  - Hauek ere lege lerruna duten exekutiboaren arauak dira. Legebiltzarraren eta exekutiboaren arteko elkar-lanaren fruitua dira eta bi botere hauen arteko delegazioaren bitartez gauzatzen dira. Mota ezberdinekoak dauzkagu:
  - Oinarri legeak: Kasu hontan Kongresuak oinarri lege bat onartzen du, non exekutiboari egingo zaion delegazioa zehaztasun osoz ezartzen den, honen objektua eta hedapena argi utziz. Oinarri legeak ez dira berez aplikagarriak diren legeak baizik eta Gobernuari zuzentzen zaizkion lege batzuk honek Dekretu Legegile baten bitartez garatzeko. Delegazio honen fruitua testu artikulatu bat izango da.
  - Delegazio legeak: Kasu hontan Botere legegileak botere exekutiboari delegazio bat egiten dio honek aurretik existitzen ziren zenbait lege errefunditu edo batu ditzan. Delegazioa Lege arruntaz egiten du betre legegileak eta botere exekutiboaren lanari testu errefundituak deitzen zaie. Esan beharra dago Botere Exekutiboak ezin duela tresna hau aprobetxatu materia hori berritzeko, aurretik dagoena antolatzeko baizik.

## 5.- Erregelamenduak:

- Exekutiboak onartzen dituen arauak dira hauek. Ez dira herriaren borondatearen islada baizik eta boterean dagoen Gobernuaren borondatearen islada.
- Erregelamenduak beti Legearen azpian daude, ezin dute hau urratu.
- Botere Exekutiboak Erregelamenduetaz hain Egintza Administratiboak ematen ditu. Zein da bien arteko ezberdintasuna? Egintza Administratiboak sujetu bati edo batzuei zuzentzen zaizkio konkretuki, erregelamenduak aldiz, kolektibitate bati. Bestalde, egintza administratiboak agortu egiten dira eta erregelamenduak aldiz, ez.
- Erregelamenduak egiteko aukera: Gobernuari dagokio Konstituzioaren 97. Artikuluaren arabera. Erregelamenduek Administratibotik kanpo dute eragina, hiritarren gainean.
- Bi motatako erregelamenduak bereiz ditzazkegu:
  - Erregelamendu exekutiboak: Hauek Legeak garatzen dituzte, Legeak berak eskatzen dituelarik. Legeak zehazten ez dituen detaileak emango dizkigute, hau da euren funtzioa, besterik ez.
  - Erregelamendu independienteak: Ez dute Legeak garatzen. Legearentzat erreserbatuta ez dauden materiak arautu ditzazke Gobernuak hauen bitartez. Lege erreserbaren kasuan, soilik erregelamendu exekutiboen bitartez osa daiteke materia hori.
- **Erregelamenduak emateko eskuduntza:** Estatu zentrolean, Gobernuak. Erkidegoetan, Erkidegoko Estatutuak zehaztuko du kasu bakoitzean organu zehatza. Udaletan, Udaletxeko Plenuak edo osoko bilkurak.

## **6.- Zuzenbidearen Printzipio Orokorrak:**

- Erregela orokorrak dira, helburuezberdinak dituztelarik: Erregelamenduak egiteko aukereren mugatzean dute, ordenamendu osoa informatu eta inspiratzen dute eta beste arau baten ezean aplikatuko dira.
- Ordenamendu juridikoa osatzen dute, zuloak betetzen dituzte.
- Konstituzioak onartzen dituen printzipio orokorrak: berdintasuna, segurtasun juridikoa, arauen arteko hierarkia, arauak atzeraeraginkortasuna positiboak ez diren heinean.

## **7.- Ohitura:**

- Zuzenbide Administratiboaren kasuan iturri honek garrantzia oso gutxi du, Administrazioak beti aurretik emaniko eta indarrean dagoen arau idatzi batenpean jardun behar duenez, ohiturari ez zaio esparru handirik onartzen.
- Dena den zenbait arlotan, ohiturak bere papera bete dezake zuzenbide adm-an, adb: nekazaritza arloan.

# **KONSTITUZIOA**

**LEGEA EDO LEGE MAILAKO  
ARAUAK**

**NAZIOARTEKO  
TRATATUAK**

**ERREGELAMENDUAK**

**EBKO ZUZENBIDEA**

**P<sup>o</sup> OROKORRAK**

**OHITURA**